

Gai ordena:

- 1- Herriko plaza**
- 2- Energia aurrezteko ekimenak**
- 3- Bizikleta gordailua**
- 4- Zubingo hondakindegia**
- 5- Kale nagusiko etxe bateko eskaera berezia**
- 6- DOTak**
- 7- Errepideetako arduradunekin bilera**
- 8- Ur instalazioak**

1- Herriko plaza

Duela hilabete batzuk egindako plazako bankuen konfigurazio aldaketa onuragarria izan da. Hala ere ez dira iritzi gehiegi jaso eta gure artean hurbileko jendeari galdetzea erabaki da. Bestalde plaza eta inguruan dauden arazoak identifikatzen saiatu gara. Hauek atera dira:

- Udaletxetik plazaruntz pasatzerakoan “bisibilitatea” ez da oso ona, gehien bat aparkatutako kotxeengatik (aparkalekuak ilaran jartzeak egoera hobetuko luke)
- Autobus geltokian aparkalekuak egotea geltokiari zentzua kentzen dio.
- Autobus geltokia oso zikina dago.
- Plazako jardineretan landareak falta dira.
- Kotxeen abiadura murrizteko aukera gehiago aztertu daitezke (semaforoak radarrarekin?). Bizikletek beste problema bat suposatzen dute, hauek azkar joaten direlako eta etzaielako entzuten.

Datorren astean Diputazioko errepideetako arduradunak etortzekoak dira eta hainbat kontsulta egingo zaizkio (O.A., A.G.)

2- Energia aurrezteko ekimenak

I.A.k azaldu digu Orexan energiaren inguruko lanketa polita egiten ari direla. Lanketa integrala omen da (energia sortzeko eta aurrezteko). Etorkizunean beraien ekimenak azaltzera gonbidatuko ditugu.

3- Bizikleta gordailua

X.I. gordailua eraikitzeke aurrekontuak eskatuko ditu.

4- Zubingo hondakindegia

I.A.-k komentatu du Jaurlaritzak dirulaguntza berriak atera dituela (ingurumena). Zubingo hondakindegian zerbait egiteko dirua eskatzea ondo legoke, baina ez dago argi eskatu daiteken terreno hori ez baita udalarena. Edozein kasutan Aldundiak 2002. urtean egindako plana “berpizteko” saiakera egin daiteke, Ejko arduradunekin hitz eginez (lur kutsatuen ardura Ejrena omen da)

5- Kale nagusiko etxe bateko eskaera berezia

O.A.-k esplikatu digu kale nagusiko portal batek igogailua jarri nahi duela baina

aurkeztutako proiektuko igogailua jarrita geldituko litzatekeen eskailerak ez luke eskatzen den zabalera minimoa beteko. Ba omen daude beste irtenbide tekniko batzuk baina askoz garestiagoak dira.

6- DOTak

Laster jaurlaritzak DOTak aldatuko ditu eta badirudi partehartze prozesu bat ireki dela. Informazioa banatu da baina ez daukagu argi prozedura benetan erabilgarria den guretzat.

7- Errepideetako arduradunekin bilera

Datorren astean Diputazioko errepideetako arduradunekin bilduko dira O.A. eta A.R. Bekokaleko problematika azalduko zaie (karreterari irteera bat eman nahi diogula Bekokale bukaeran) eta herriko plazan kotxeen abiadura murrizteko aukerak ere komentatu nahi dizkiegu.

8- Ur instalazioak

Badirudi ur depositotik herrira dihoan tuberia aldatzeko mahaigainean zegoen proiektua baino alternatiba hobeak egon daitezkeela. O.A. eta A.R. alternatiba horien aurrekontuak eskatu dituzte.